

AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpiritua agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN




MAHATSERRIKO AID ZKARIA

beirton

Lege gordailua: BI-85-9/8

2001ko APIRILA 32. zkia.
125 pzta.

Imanol Agirre:
"Badut noizbait txapela janzteko esperantzarik"



Korrika 12
Kilometro z kilometro


bertonekoak



Erretratua Euskal Museoak paratutako
"Eulalia Allende Salazar. Gure aurreko Andrak" liburutik hartuta dago.

Plazatik bueltan

Azken aldion beste altxor batzutan bila ibili eta gero oraingoan atzera be Eulalia Abaitua zanaren erretratu sortara joan gara. Bertetik ale hau atara dogu, Txorierriko andrak Bilboko plazatik etxerako bidean. Argazkia Egirleta -Santo Domingo- ganean eginda dago. Andrak bendejagaz joaten ziran plazara baserriko produktuak bertan saltzeko. Bilbotarrek erosketak egin ostean baserritarrok gauzak batu, asto ganera igo eta Egirletatik gora etxera. Begoñako baserri askotan be holanik egiten zan.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Potorroak Boluetan	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Mendi Ibilbidea	27
▶ Mahatserri Auzo Elkarte	10	▶ Kultura: Deabru Beltzak	28
▶ Korrika Kilometro zehar	12	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Bakarka: Imanol Agirre	15	▶ Hileko Argazkia	31

Honeik Bertonekoak ez dakidxe zer egin jentiek rebistie leidu deidxen. "Potorroak Boluetan", ta klaro! Hamen danak hain ondo dakidxen lez potorroa zer dan, ba pentsau daurie: "Joder, Bertonekoak rebista pornografikoa egin daurie? Honek zer egin ete daurie, ba? Interviu lez neskatoak biluzik atara?" Ta morboagaz-eta, danak erosi, ta erosi, ta leidu, ta potorroak txoridrek direzela, itxaso inguruen ta ibiltan direzenetarikoak, ta Boluetan baten bat ibili dala, ta horixe da dana... jodeeeee! Ez ba! Potorroak txoridrek direz ta tortolak ez direz txoridrek, ta ez direz gauze bera, ez gero! Ta kasualidadie ixengo da baie penie da (ta penie ez da kirtena gero!) holangoak bota ta danak barrez hastie.


Ta pilota partidu baten Euskitzeri entzuten dotzie-

nien baten bat pilotie "gozaten" dabilela, zer pentsaten daurie ba? Euskaldunok beste inon ez dagoan "deribaziño" sexuala asmatu dogule? Holan ixen ezker, baten batek ifiniko zauen honezkerorri bat interneten "Basque balls orgy" edo halango ixen bategaz. Lastima Bertonekoeri ahixtu egin jakiela Imanol Agirrerri preguntetie pilotie gozatzea zer dan, holan baten batek jakin egingo zauen azkenekoz.

Dana dala pentsaten dot Bertonen sexu apur bet bere sartu egin biherko litekela, baie hori beste baterako itxiko dogu.

Porsiertu, ze txori klase da potorroa, baten batek jakin ezker badakixue:
matzorriano@elektrotuna.com

BEGOÑAKO GABRIEL ARESTI KALEAREN SANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Txurdinaga auzoan dogu Gabriel Aresti kalea. Izan bere, kale honek Pio Baroja herri ikastetxetik eta Txurdinaga Beheko Institututik jotzen dau Adoratrizen lekaimen ikastetxe-raino. Hau da, mutur baten, Circo Amateur del Club Deportivo kalea dau, eta bestean, barriz, Jesus Galindez etorbidea. Kale honek Gabriel Aresti Seguro-la olerkari bilbotarra dakarsku gomutara. Olerkari botxotar hau 1933. urtean jaio zan, eta gazterik hil 1975. urtean, 42 urte zituala.

Beraren liburueta gehienak klasiko bihurtu dira euskal letren par-nasoan, berbarako, Harri eta Herri, Harrizko Herri Hau, Maldan Behera eta abar. Eta beraren olerkietako hainbat eta hainbat euskal kantariak ekarri ditue musika.

Bere kasetako literaturagilea izan genduan, bere bidea euskal olerkigintzari emon eutson, eta Euskaltzaindiko kide osoa izan zan. Euskara batuaren aldeztaille sutsu eta gartsua izan genduan; bizi zala, oso eztabaidazalea izan genduan, eta bere sasoiko borroka intelektual guztietan sartuta ibili zan.

Esan geinke berak bizi zala eskatu zituan gauzetako bat ez zala bete; izan bere, berak olerki baten esan zuan ezker, ez eban gura izan bere izenik Bilboko kaleetarik bati bere ez jartzea. Eta hemen dihardut nik, beraren izena dauan kalearen inguruan barriak emoten.

Gotzon Lobera Revilla

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martinez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200



Potorroak Boluetan Hegazti arrainjale hau Ibaizabaleko ibarretan agertu da

*Testua: Jabier Gonzalez
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Bizkaiko arrantzaleek "potorroak" edo "kotorroak" esaten diete. Handiak dira, multzotan bizi dira eta ehiztari fin ospea darie. Gurean Txingudi eta Urdaibai bezalako tokietan oso ezagunak dira. Oraingo honetan Ibaizabaletik gora jo eta gure artera aldatu dira. Potorroak Boluetan daude.



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIEL ARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak

Sarean Jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak

Aita Pernet, 1
48004 Santutxu
Bilbo
Tfnoa/fax: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net



Ahateak ere badirela ematen du, argazkia ikusita behinik behin.

Abusuko ikastolaren ondoko zubitik gora, Ibaizabaleko urak oraindik ere itsasoaren besarkada hartu barik daudenean, itsasotik heldutako hegaztiak dabilta. Hantxe erraz ikus daitezke antxetak, kostaldeko neba-arrebek baino karranka gutxiago egiten badute ere. Errekaren erdiko haitzetan egoten dira eta, noizik behin, hegalaldi leunak egiten dituzte hara eta hona uretan arrainik ote dagoen begiratzeko.

Baina kalatxoriez gain, badira inguruotan azkenaldion agertu diren beste auzo batzuk. Izen zientifikoa Phalacrocorax carbo dute. Baina euskaraz, "potorro", "kotorro" edota "ubarroi" esaten zaie. Sestaoko Natur Zientzietako biologo Juan Manuel Pérez de Anak esan duenez, azken bost urteotan potorroak Abratik gora hasi dira. Lehenengo, Sestaoko La Benedictaraino heldu ziren, Zorrotzaraino geroago eta azken bi urteotan Bolueta bertoraino ere iritsi dira.

Biologo honek dioenez, hegaztiok Boluetako ibarretako makalen artean egiten dute lo. Erraza da Abusutik Boluetaraino doan errepide bertatik, ikastolaren inguruan batez ere, potorroa haitz baten gainean eguzkitan ikustea. Beharbada, bere hegalak zabalduko ditu eguzki printzen eraginez arinago lehortu daitezten. Eta zortea eukiez gero, ibaiko uretan arrain bila zelan murgiltzen den ikusteko parada

egongo da. Hala ere, inork ikusi nahi baditu, presaka joan dadila. Adituek diotenez, hegazti hauek neguko hotzak dirauen bitartean baino ez dira gure artean egoten. Uda Britaina Handian eman ohi dute, hango beroa gurea baino epelagoa izango delakoan. Aukera galduez gero, lasai, hurrengo udazkenean hona etorriko dira atzera.

UR GARBIA
Adituen esanetan, hegaztiok Boluetaraino heldu izanak Ibaizabaleko uren garbia aldarrikatzen du. Potorroek arrainak jan ohi dituzte. Horraino iritsi badira arrainak ere ugari direlako izango delakoan daude biologoak. Eurek diotenez, Boluetako ubarriek korkoinak eta angilak harrapatu izaten dituzte gehienetan.

Dena dela, begi bistakoa da uraren kalitatearen gorakada. Erreka ingurua oso itxura ederra hartu du azken aldion eta lehen ohikoak ziren ur beltzak eta zerien hatsa desagertu dira. Ibaia bizia itzultzen hasia da.

Abusu eta Bolueta artean ibili ohi direnek bestelako hegaztiak ere ikusi dituztela diote. Batzuek ahateak dabiltzala esaten dute. Horrela segituez gero, Urdabairi konpetentzia egitekomoduan egongo ote dira ibar mahatsorriok?



Phalacrocorax carbo

Phalacrocorax carbo

Hegazti handia, metro eta erdiko luzerakoa, kolore ilunekoa edo beltza. Kostaldean Txingudi, Urdaibai eta Ibaizabaleko itsasadarrean egon ohi da. Barrukaldean ere agertzen da, Legutioko urtegian esate baterako.

Euskal Herrira urria eta azaroan iritsi ohi dira Britainiar uharteetan uda eman eta gero. Hala ere, Urdaibaiko uretan lehenengoak irailean edota abuztuan ere agertu izaten dira. Joan martxo eta apiril bitartean joaten dira, baina maiatzean oraindik gelditu ohi dira banaka batzuk. Animalia gazteek urte osoa eman ahal dute gure artean.

Nonbait trebeak badira ur azpian da. Aldarte luzeak egiten dituzte uretan murgildurik eta gorputza luzatutakoan buzeatzailerik bikainak bihurtzen dira. Normala da, janari hortxe daukate-eta. Murgildu ostean eguzkitan hegalak zabalik egotea maite dute.

Hegan egiten, oster, ez dira hain abilak. Hegaldia hasteko abioien antzeko mugimendua egin behar dute.

Urdaibai aldean orain hamar urte 75en bat ubarroi -cormorán grande, gaztelaniaz- zeuden kontatuta.

Badago famili bereko beste hegazti bat, phalacrocorax aristótelis, Bizkaiko kostaldean oso zabaldua. Besteak ez bezala, hauek ez dira uda beste inon ematera joaten. Beltz-beltzak dira eta Ogoñoakoa Kantauri itsasoan ekialderago dagoen kolonia da.

ORAINGOAN URIBARRI AUZORA JO DOGU ETA
MAITENA MURUAGAK BERE BIZIPENAK ETA AUZOKO
EUSKALTZALEEN ESPERIENTZIAK KONTATU DEUSKUZ

Begoña eta Euskerea

I.Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

MAITENA MURUAGA, URIBARRIKO EUSKALTZALE SUTSUA

Berton.-Nongoa zara zu?

Maitena.- Ni Matikon jaio-takoa naz. Matiko da Tivolitik Urribarrantza datorrena.

Zuk euskera ikasi egin dozu gero ezta?

Nik txikitan ikasi neuen etxean. Aite Larraurikoa zan eta ama Gamizen jaio-koa. Etxetik dakit baia gero galdu egin neuen asko eta ikisten hasieran joan nintzen Ribera kalera. Badakizu Euskaltzaindia zegoen han. Xabier Peña gogoratzen dot, euskaltzale jatorra, han ikasi neuen ezkon aurretik. Gero ba, badakizu ezkondu eta gero, alaba txikie eroaten genduen Aixerrota, eta Artxandapera eta bere eskola sasoiaren joaten ginen euskerea hobetzen, bizkaieraz, batuaz bere bai eta orduen naste-borraste egiten dot.

Nongo eskoara joan zara?

Tivoliko eskolara joaten nintzen, erdera hutsa eta ganera eskua altxata eta han egon ziren Klementina Naveran,



“Mahatserri euskara elkarteagaz gabiltza barriro”

egiten zuen behar eta horra joaten zan.

Txakoline aitatu dozu eta zenbet txakolindegi eze-gutu dozuz hemetik?

Arriero, Gloria Laso eta.. falangista hutsak.

Zelakoa zan zure denboretako Matiko? Etxe gitxi egongo zan orduan, ezta?

Matikon, ni bizi nintzen aurrean, etxerik bere ez, "tejera ez dakit zer" egon zan han eta otzarak egiten zuten lekua, La Concordia taller bat euki euriaren eta horrek baino ez ziren egon gure etxe aurrean.

Zurbaran, Popular eta Ciudad Jardineko txale-tak eginda egozen ordu-rako?

Bai, ni hogeta hamabostean jaio nintzen, (leku) hau izen zan Estrada de Trauko eta gure etxe azpien erreka egon zen, eta aite eta amagaz pasean txakolindegira etortzen ginen, Esteban txakoline bere egon zan pixka bat behe-rago. Aitek Etxebarrian



Montaño gehien ezagutu dot, Patillas, Tutulu be baina ez naz ondo gogoratzen. Esteban bai, ze erreka egon zan eta.

Zein izen eukan harek errekeak?

Ez naz gogoratzen txikia zan legez, ez geuntsen garrantzirik emoten baina hidroelektrika bat egon zan, "Hirurak bat" edo holako izen bat eta Matikotik eta Traukotik estrata bat izan zan Begoñara joateko Patillasetik. Dana zan estrata eta soloa.

Labaderorik edo egon zan hemetik?

Labaderea egon zan hor behean Udalaren ofizinar dagozen tokian, eta hortik goitik be egon zan beste bat.

Trena eta funikularra ezetu dozuz ezta?

Bai, bai. Mungiko trenean askotan joanda nago ni Jatabera, amaren herrira eta Mungira, Matikotik Mungiraino.

Zu euskera munduan beti ibili zara ezta?

Bai, interes handiagaz hartu dot nik euskerea.. lehen-go metodoak Xabier Peña eta, ondo pasaten neban nik, bentaja neukan banenkielako erabilten eta gogoz har-tzen nuen, gero itxi egin nuen.

Urribarrin lehen egon zan Euskal Txokoa, zelan dau gaur?

Lau lagunek, Ramon eta.. mutil bi eta neska bi, gurasoak kanpokoak baina euskera ikasi eben ondo eta sortu genduen hemen AEKren lokaletan, eurek itxiten euskuen

lekue, eta hainbat gauzetxu egiten genduzan.

Zer egiten zenduen?

Aldizkari bat hilero, Mahatserri izenekoa, bertso afariak, hiru edo lau urtetan udebarrien eta azkenengoa orain dala hiru urte edo, urteerak Zuberoara maskaradatar, bi edo hirutan Barkoxera, Santutxuko Gaztedikoak be egon ziran batean, eta gero egin dogu Santutxuko bertso eskolakoak.. Lora Jokoa be bai, hitzaldiak, literatura lehiaketa batzuk eskolakoekin, aste kulturala...

Zenbat denpora egon zan Mahatserri alkartea?

Ba, lau edo bost urtetan bai, eta orain gabiltza barriro.

Lokalik badaukazue?

Lokala ez, gure etxean itxiten deuskue, mendi taldea be badago Gailurra, horreik be hor elkartzen dira eta danontzako lekua egin behar, batzutan iluntzean.

Euskal Txokoa be bada ezta?

Bai. Itsaslamiak, horrerik buruz be esango dizut. Begira, AEK-koak urte bi hemen ez dagozala, horreik hasi dira urrian edo, eta orduan eurengana joateko gauz bilerak egiteko eta esan ziguten toki ona daukiela eta bideoak eta ludoteka eta guk lagunak eramateko, eta hor gabiz alkar lagunduten.

Orduan barriro hasi da euskeraren aldeko mugimendua?

Bai, asmoak badagoz baina indar gitxigaz.

Mahatsorri auzo elkarteak: "Auzokoen kezka elkartearenak dira"

Begoñako auzokideen elkarteak orain dela lau urte jaio zen gasolindegiazen arazoa zela eta



Testua: Arrate Díez

Duela lau urte Begoñan zegoen gasolindegiazen zabaltze lanak zirela eta inguruetakoz auzokideek bat egin zuten bertatik ken zezaten arrikus handia zelakotan.

Bertoko bizilagunen mobilizazio eta gasolindegiazen inguruko kezka hau Begoñako Mahatsorri auzo elkarteak sortzeko motore bihurtu zen. Auzokoei eratzeko premia igarri zuten Begoñaldeko arazoei aurre egin ahal izateko.

Mahatsorri auzo elkarteak batez ere Mallona, Etxebarria parkea, Mazustegi eta Zurbarango bizilagunak baten dira. Hala ere, "nahi duen guztiarentzat lekua dago".

LORPENAK

Mahatsorri auzo elkarteak gasolindegiazen leku aldatzea lortu zuela dio, Begoñan egindako ekintza guzti bidez. Orain lau urte mobilizazioak, pankartak

balkoietan eta errepide mozketak eguneroko ogia bilakatu ziren basilikaren inguruetan.

Gasolindegiazen kasuan legez, tanatorioaren aurkako mobilizazioak egin zituzten inguruetakoz bizilagunek enpresa pribatu baten asmoak geldiarazteko. Mahatsorri elkartearen iritziz, auzo elkartearen xedea auzokideen bizimodua hobetzean datza, beti ere iritzi guztiak kontuan hartuta eta onena aukeratuta.

Gainera, auzoaren bizitzan eragile izan nahi dute. Mahatsorrikoek kirol ekintzak prestatu dituzte azken urteotan. Hala, bi urtez Begoñako herri krosaren antolatzaileak izan dira. Kirolaz gain, kulturaren arloa ere jorratu dute. Txurdinagako auzo etxean erakusketa bi erakusketa jarri dute ikusgai. Lehenengoa Begoñako baserrien ingurukoa eta bigarrenak bertako margolariek euren lanak plazaratu zituzten.

Honez gain, mantenimendu masailen ikastaroa ere antolatuta daude. Kurtsiloak bost hilabetez iraun zuen.

Zumalakarregi etorbidearen estaltzea eskatzen dute



ELKARTEAREN KEZKAK

Elkartearen kezka nagusietarik bat lokal eza da. Hala ere, Begoñazpiko elizak txoko bat uzten die bertan biltzeko. Batzarrotako ateak zabal-zabalik daude guztiarentzat. Zuzendaritza batzordea hamabi lagunek osatzen dute. Hamabostero batzen dira, premiazko gaiak landu behar ez badira behintzat. Denetara milaren bat bazkide dira eta urtean 500 pezetako kuota sinbolikoa ordaintzen dute.

Bestetik, auzokoen artean dagoen kezka nabarmen bat espaloien egoera da, batez ere Zumalakarregi etorbidekoen egoera kaxkarra. Kale horren lurperatze lanak ere Begoñaldekoen eskari nagusietarik bat da. Kale

hori Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago eta ez Bilboko Udalarenean. Beraz, Jaurlaritzak Udalarari utzi behar dio eta orduantxe hasiko lirakeke autobidea estaltzeko lanak.

Kontuan hartuta oraintsu amaitu direla Makua plaza berriaren lanak eta Mallonako futbol zelaiaren berriztapenak, Zumalakarregi etorbidearen lanak noiz hasiko diren esaterik ez daukate. Edozelan ere, euren lehen eskarietarik bat da.

Azkenik, Mahatsorri auzo elkarteak Bilboko gainerako elkarteekin harremanetan daude, Irala, Santutxu eta Alde Zaharrekoekin besteak beste.

Mahatsorri auzo elkarteak milaren bat bazkidez osatuta dago

Bazkide txartela

Izen deiturak:	ENA zenbakia:
Helbidea:	Herria: Posta kodea:
Telefonoa:	Lanbidea: Jaioteguna:

ASAPALA
KULTUR ELKARTEA
Iturriaga 55.1 Ezkerrean 48004 Bilbo
Telefonoa: 94.67354.48
E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota: <input type="checkbox"/> Bazkide soila <input type="checkbox"/> Ekintza jakinetan laguntzaile <input type="checkbox"/> Lantaldeko partaidea	Ordainketa: Kontu korronte bidez <input type="checkbox"/> 500 pta <input type="checkbox"/> 1000 pta <input type="checkbox"/> 2000 pta <input type="checkbox"/> pta Asapalaren kontuan 3035 0071 6 071 105864 2	Kuota korronte bidez <input type="checkbox"/> 500 pta <input type="checkbox"/> 1000 pta <input type="checkbox"/> 2000 pta <input type="checkbox"/> pta
---	--	---

MAHATSORRIEN KORRIKA, KILOMETRORIK KILOMETRO

bertin



Korrika 12

AEKk ANTOLATU EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETA JENDETZA HANDIAK BILDU ZITUEN GUREAN

Korrika 12aren arrakasta begi bistakoa izan bada ere, gure artean euskaltzaleak andanaka bildu zituela esatea ez dago soberan. Mahatsorri askok tipi-tapa edo karran euskararen aldeko urratsak egin zituzten betikoek gure hizkuntzari eta AEKri berari ere gero eta aldatz gogorragoak ipintzen dizkioten garaiotan. Hona hemen gure artean martxoaren 31aren arratsaldean gertatutakoaren lekukotasuna, kilometrorik kilometro

419, 420 eta 421 kilometroak. Mahatserrian Artxandatik sartu zitzaizun Korrika. Arratsaldeko hirurak aldera. Nogaro, Polikiroldegia, Egirleta eta Arabellatik igaro zuen lekukoak, Lizardiko mendi taldearen eta Renfeko langileen eskuetan, besteak beste.

422. kilometroa. Arabellatik Txurdingagako Tortillaraino. Begoñako Arrano Gorri kultur elkarteok ekarri zuten lekukoa. Pozaren pozez zetozen, aldapan behar txanda izan zelako behar-bada.


423. kilometroa. Tortillatik Gabriel Aresti institutura. Gazte Abertzaleak erakundearen ardura zen baina ez ziren agertu. Aukera ikusita, Santutxuko neskatil

bi animatu ziren lekukoa jasotzen.

424. kilometroa. Institututik Otxarkoagako plazara. Gabriel Aresti institutuko ikasle, irakasle eta langile pilo batek egin zuen kilometro hau oso giro alaian.

425. kilometroa. Otxarkoagatik Gaiarre-Ondarroa kaleetaraino. Pa Ya! konpartsak eraman zuen lekukoa euren auzoak euskararen lasterketari ongi etorri jendetsu eta beroa ematen zion bitartean.

426. kilometroa. Boluetako metroraino. Berrito ere Txurdingagako protagonista. Oraingoan, Bagabiltza eta auzo elkarteak. Han Kaia sindikatuko langileak -portukoak- itxaroten zeuden,



2001ko apirila - 32. zkia.

lekukoa Etxebarrirantz garraiotzeko prest.

- 446. kilometroa.** San Anton zubitik gora Zabalbide-Santutxu kale arteraino. Elkarrik eraman behar zuen lekukoa baina ez zen inor agertu. Hala ere, lekukoa ez zen galdu eta aldatz gogorrean gora Santutxun sartu zen.
- 447. kilometroa.** Karmeloraino. Santutxuko eskolen kilometroa. Korrika nabarmen loditu zen hemen hainbat euskaltzaleren presentziari esker.
- 447 (bis). kilometroa.** Karmelotik Iturriagara (Sei Izar). Sorgintxulo gaztetxearen eskuetan gelditu zen lekukoa. Gazteen adorea igarri egin zen. Izan ere, uneotarako Korrika manifestazio itzel baten itxura hartuta zegoen.
- 448. kilometroa.** Iturriagatik Polikiroldegira. Kilometrora lasaia, dantzari txiki batek, edadeko beste baten laguntzaz, tipi-tapa eraman baizuten egurrezko lekukoa. Gaztedi dantza taldearen kilometroa izan zen, aurtun 50 urte beteko duen dantza talde zahar gaztearena alegia. Jendetza itzela zetorren lekukoaren atzetik.
- 449. kilometroa.** Polikiroldegitik Arbidea kaleraino. Txitxiribitz euskarazko astialdi taldeko umeek jaso zuten lekukoa. Urteetan labur baina kemenean luze, korrika bizian abiatu ziren.
- 450. kilometroa.** Arbideatik Begoñalde etxe-multzora. Mahatserriko euskaldunen izenean Karmele Elorriagak hartu zuen lekukoa eta, azken uneetan nekea sentitu bazuen ere, sasoi betean dagoela erakutsi zuen.
- 451. kilometroa.** Begoñaldetik Uribarriko Popularreraino. Kilometro hau BBKren langileen esku gelditu zen. Lekukoa garraiotzea, behintzat, bai, atzetik Santutxu, Txurdinga, Begoña eta Zurbarango jende pilo zeramaten eta.
- 452. kilometroa.** Popularetik Uribarriko plazaraino. Bizkaiko Foru Aldundiko langileak joan ziren Korrikaren buru. Hemen ere aldapan behera zela nabaritu zen.
- 453. kilometroa.** Uribarriko plazatik Funikular plazaraino. Uribarri, Matiko eta Castañosen barrena bertako taldeek hartu zuten lekukoa eramateko ardura. Ausartenak lekukoa ez ezik ume bat ere altxatu zuen.
- 454. kilometroa.** Funikular plazatik Salbera. STEE sindikatuko langileak. Eurak izan ziren Mahatserrian lekukoa hartu zuten azkenak. Jende asko atzetik zutela, ELA eta LAB sindikatuei eman zieten egurrezko eskulturatxoak. Hortik Deusturantz abiatu zen Korrika, Baionarako lasterketa zoroak ez zeukalako etenik.



ERTON DUGU

ERTON DUGU




Orriaren goialdean, BBKko langileen eta Txixiribitz taldeko umeen kilometroak. Behean, Korrika Uribarrin, Zabalbidetik gora, Gaztediren kilometroa eta Sorgintxulorena. Azken biak Santutxun.



e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

IMANOL AGIRRE

"Badut noizbait txapela janzteko esperantzarik"



Askotan komunikabideetan Arteako pilotariaren gora beherak entzun edota ikusi ahal izan ditugu, baina jende ugari ez dakiena Imanol Agirre Mahatserrian bizitakoa dela, Begoñan hain zuzen ere, eta bere lehen pilotakadak Karmelo Ikastolan eman zituela. Ondoren, bederatzi urte bete orduko aipatu Arratiako herrixkan finkatu zuen bere bizilekua. Orduetik eta ona Mahatserrira osteratxoak egin izan ditu, Karmelora umeei pilotan erakustera batipat. BERTONEk berarekin hitzegiteko parada izan du eta aurtengo eskuz banakako txapelketan aurrelariak egindako ibilbidea aztertu dugu.

Testua: Unai Cuevas
Argazkiak: Iñigo Azkona.



Zuk Karmelo Ikastolan ikasi zenuen orain dela hainbat urte. Nola gogoratzen dituzu garai haiek?

Aspaldiko kontuak dira baina gogoan ditut. Gogoratzen naiz nola jokatzen nuen bertako frontoian nire lehengusuarekin batera. Jolastorduetan aritzen ginen batez ere.

Beraz, esan daiteke Karmelo Ikastolako frontoian hasi zinela.

Bai, hala da. Ikastolan jokatzen nuen astean zehar. Gero, bederatzi urte nituela Arteara etorri nintzen bizitzera eta hemen frontoirik ez zegoenez, ezta pilota eskolarik ere, Zeanurikoan hasi nintzen entrenatzen eta partidak jokatzen.

Zer nolako balorazioa egiten duzu aurten egin duzun eskuz banakako txapelketari buruz?

Balorazio positiboa egin behar dut. Hasierako bi

norgehiagoketan oso maila onean aritu nintzen eta gorago iristeko gai nintzela erakutsi nuen baina azkenean pena bat izan zen Errastiren aurkako partida. Hasieratik ez nintzen kantxa barruan ondo sentitzen eta txarto jokatu nuen. Irabazi izan banu oso emaitza ona izango zen, enpresako hiru jokalariren artean egongo nintzatekeelako.

Zein izan zen gakoa Errastiren aurkako partidand?

Ez nuen sentzazio onik nabaritzen, eskubiarekin ez nuen gozatzeko aukerarik izan eta Errastik ezarri zuen erritmo geldoan banekien ezingo nuela ezertxo ere egin, erritmo horretan berak asko jokatzen duelako. Gainera, aurreko partidetan ez bezala, urduri jartzen hasi nintzen eta horrek azkenen eragina izan zuen.

Zein asmo zenuen txapelketa hasi aurretik?

Banekien nire jokoa egiteko aukera izanez gero txapelketa ona borobil nezakeela eta hori egitera atera nintzen baina azkenik ezin izan nuen urrunago heldu.

Zertan duzu hobetu beharra? Zer ari zara lantzen? Nahiko langilea kontsideratzen naiz eta azkeneko bi edo hiru urteotan psikologiaren arloa sakonki landu dut. Aurten ondo aritu izan banaiz aurreko urteetan ekinean egon izan naizelako izan da. Beste modu batera esanda, aurreko urteetako lanaren emaitza jaso dut. Arretxe eta Ruizen aurkako partidei dagokionez, defentsan ondo aritu naiz eta ezkerre ere hobetu dut. Nire postura, bestetik, ez da onena, baina arlo horretan lanean ari naiz. Urtero pausu txikiak ematen ari naizela esan daiteke. Hala ere,

oraindik gauza asko geratzen zaizkit hobetzeko eta oraindik gaztea naizenez, badut denborarik oraindik ere aspektu askotan hobetzeko.

Zure burua txapeldun gisa ikusten al duzu noiz-bait?

Oso zaila da, baina batzutan pentsatzen dut, pentsatzea librea baita. Dena den, egun jende asko dago eta oso ona gainera baina esperantza txiki batzuk baditut noizbait txapela janzteko. Hala ere, horretarako zortea ere faktore garrantzitsua da. Bitartean, nire akatsak zuzentzen jarraituko dut.


Zuretzat helburua al da txapeldun izatea?

Helburua baino gehiago amets bat. Baina nik lane-



Goian, Agirre eta Errastiren arteko partidako une bat.

Behoko argazkian, Imanol Agirre Asegarceko pelotari ospetsuenen artean: Beloki, Arretxe eta Errandonea.



honetan eta honek amorrua ematen dit. Txapeldun izatea gehiegi izango litzateke baina gutxienik emaitza hobeak eta joko hobeak erakustea nahiko nuke.

Zein da zure favorito nagusia aurtengo eskuz banakako

txapelketarako?

Eugi oso indartsu eta posibilitate askorekin ikusten dut. Bestalde, Rai ere oso ondo ikusten dut eta irabazteko gai dela uste dut. Baina, goi mailako partidak jokatzeko esperientzia gehiago daukate Eugi eta Belokik eta horrek asko laguntzen du. Niretzat favorito nagusia Eugi da baina Rai ere kontutan hartzeko pilotaria dela uste dut.

ZORTZI GALDERA LABUR

Amets bat:

Txapela janzea.

Pilotari bat:

Inaxio Errandonea.

Bazkari bat:

Arroza.

Pelikula bat:

Casablanca.

Abesti bat:

Jokoz kanpo hartu nauzu gai honetan.

Ez datorkit bat ere ez burura.

Herri bat:

Artea.

Retegi ala Galarza:

Galdera zaila baina Retegi esango dut.

Pilotan, banaka ala bikoteka? Banaka.

OPORRETAN JOATERAKOAN METEOROLOGOEN

ESANEI KASU EGITEN AL DIEZU?

ALBERTO (BOLUETA)

Gutxi gora behera. Orain bai, lehen ez. Ez zegoen hain teknologia ona. Orain fidatzeko moduko informazioa ematen dute.



ITZIAR (SANTUTXU).

Bueno. Kasu ez, baina begiratu behintzat bai. Dena dela, gehienetan ez dute asmatzen.



ARANTZA (INDAUTXU)

Batzutan bai. Asmatu gehienetan asmatu egiten dute baina berandu. Astelehenean ez bada asteartean izaten da.



ASIER (SANTUTXU)

Ez asko. Isobara mapa begiratu ohi dut. Bada- kit zelangoa da gure eguraldia eta maparekin nahikoa dut.



IBAN (SANTUTXU)

Kontutan hartu bai, baina sinestu gutxitan. Gauza bat esaten dute eta kontrakoa dator gero. Hobe lehiotik begiratzea.



MIREIA (GALDAKAO)

Nik behintzat, ez. Oso gutxitan ikusten dut eguraldiaren saioa. Ez zait interesatzen.

MARISA (SANTUTXU)

ETBkoa ikusten dut. Batzutan asmatzen dute.



ELENA (SANTUTXU)

Ez. Ez naiz fidatzen. Kasurik ere ez diet egiten.

Kazuela hotsak Azurlekun

Etxe baten gainean antena jarriko zutela jakin zutenetik iluntzero protesta zaratatsua egiten dute



Iluntzeko zortzi eta erdietan Basarrate ondoko Azurlekuko etxeen azpian eguneroko normaltasuna hausten da. Dozenaka herritar, kazuela, plater, arrana, turuta eta edo zelango tresna zaratatsuez hornituta, protesta zalapartatsua egiten dute. Arrazoia? Ez dute nahi telefono mugikorretarako antenarik euren etxeetako teilatuetan.

Azurlekuko 17. zenbakiko etxebizitzako bizilagunek abuztuan eginiko batzar batean etxeko teilatua telefono mugikorretako enpresa bati alokatzea erabaki zuten. Enpresaren asmoa bertan antena bat jartzea da. Deliberoa aldeko zortzi bozekin eta kontrako seiekin aprobaturik zen. "Orduan, udabetean, oso jende gutxi zegoela hartu behar da kontuan", diote auzoek.

Kontratua sinatutakoan enpresak antena iminteko lanak hasi zituen. Apirilaren hasieran, obrak zertarako ziren zabaldu zenean auzoen kezka eta haserrea izetu zen. Geroztik, astean zehar, arratsaldeko zortzi eta erdietan, protestak behin eta berriz errepikatzen dira.

Azurlekuko hogeitabi komunitaterik bakarrak eman zion baietza enpresaren ofertari. Orain 17. zenbakiko bertako bizilagunak zein ondoko etxeetakoak "Antenarik ez" leloaren inguruan biltzen dira. Etxeetako balkoi nahiz lehioetan pankartak eta kartelak eskegi dituzte euren eskaria lau haizetara zabaltzeko asmoz. Udalera ere jo

dute laguntza eske eta Bilbon bertan antzeko arazoek eutsi behar dietenekin batu dira.

ILUNTZEROKO HITZORDUA

Apirilaren hasieratik Azurlekuko auzoen erantzunik trinkoena iluntzeko zalaparta hotsenak izan da. Dozenaka lagun batu ohi dira, umeak, gazteak, andra eta gizon, edadekoak ere ez gutxi, antenaren aurka protestatzeko asmoz. Pankartak egin dituzte -batez ere "Antenarik ez" lemarekin- eta euren inguruan biltzen dira.

Etxetik ekarritako tresnez agertzen dira. Batzuek eskarata hutsik laga dutela ematen du: kazuelak, estalkiak, zar-taginak, burdinazko goilara handiak eta abar luze bat dakarte aldean. Beste batzuek futbolerako ekipoa jaitsi eta San Mamesen entzun daitezkeen bozina zaratsu edota karrakekin azaltzen dira. Ez da falta ere turutarik. Eta baten batek baserri giroko arranak ere erabiltzen ditu. Zarata hotsak dira Azurlekuko enpresaren errezeta.

Lehenengo zita Basarrate aldera ematen duen Azurlekuko 17ko etxearen azpian egiten dute. Han zarata eta aldarri egindakoan auzoan barrena doaz gainerako bazterretan ere euren eskariaren berri euki dezaten.

Horrelaxe egiten dute iluntzero eta berdin antzean segituko omen dute arazoa konpondu bitartean.

UDAL BAIMEN BARIK

Azurlekuko 17. zenbakiko etxeko teilatuan antena jartzen ari zirela jakin zuenean Bilboko Udalak obrak geldiarazteko agindua eman zuen. Antza, enpresak ez du erdietsi honelako obra baterako udal baimenarik. Hala ere, auzoek salatzen dutenez, lanak oso aurreratuta zeuden. Antenarako kableak jarrita daude etxe inguruan eta barruan be bai, zeregin hori amaitu ez duten arren.

Auzoen protestaren kezka nagusia antena horiek osasunari ekar diezaioketen katean datza. Oso kontu labangarria da, inork ez baita zehazki zeintzuk diren ondorioak. Antenok eremu elektromagnetikoak sortzen dituzte eta, batzuen iritziz, kaltegarriak dira, oso, pertsonentzat. Besteak beste, stresa, urduritasuna eta bestelako gaixotasunak eragin edota erraztu ditzaketelakoan daude. Bilboko Udalaren ordenantzak agintzen duenez, antenaren eta ondoko etxearen arteko distantziarik laburrenak gutxienez hamar metrokoa izan behar du. Gainera, etxeko teilatuetan ezin liteke imini 1.000 watiotik gorako indarra duen antenarik.



KALTETUAK INDARRAK BATZEN HASI DIRA

Azken asteotan horrelako arazoak nozitzen dituzten auzoak elkarrengana bildu dira. Basauriko Sagarrak-Ekologistak Martxan elkarrengana laguntza euki dute zeregin horretan. Bilbon ez dira Azurlekukoak kaltetuta sentitzen diran auzo bakarrak. Iralabarrin ere badi-ra, esate baterako.

Gainera, zenbait alderdi politikok babes eman die horrelakoetan dauden bizilagunei. Bilboko kasuan EH eta IU-EB agertu dira alde. Apirilaren 25eko udal batzarrek EHren mozio bat eztabaidatu behar zuten gai honen inguruan. EAJ-EA, PP eta PSOeko zinegotziak agertu ez izanak sesioa bertan behera uztera behartu zuen.

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

DAYTON

Kanpoko garagardoak
Ronak eta txokorrak aukeran

www.bilbaoweb.com/dayton

ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



SANTUTXU SPORT

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

Artxandako tuneletako obrak susmopean dautza

Martxoko istripua atzera gerta daitekeelako beldur dira behargin eta arduradun politikoak

Artxandako tuneletako obrak susmopean daude martxoaren 1eko arratsaldean indusitako zuloetarik bateko sabaia behera etorri zenetik. Orduan hamabost bat langilez txiripaz salbatu baziren, gaur egun adituak ez dira gauza erabateko segurtasunaren bermea emateko.

Artxandako tunelen proiektuak bi tunel eraiki nahi ditu. Bate-tik, La Salbeto zubia eta Txori-herri lotu behar duena eta, bes-tetik, Txori-herri bera eta Deustuko Ugasko elkarlotuko duena. Diputazioaren planak biribiltzeko La Salbe eta Ugaskoren artean errepide bat egingo da, Deustuko Unibersitatearen atzealde-tik.

Martxoaren bateko arratsaldean, euri mardulen eta haitza-

ren bigunaren ondorioz Artxandako tuneletarik bateko sabaia behera etorri zen. Guztira, hogeit metroko zati bat jauzi zen. Orduan inguruan lanean zebiltzan hamabost langileak onik atera ziren, oraindik ere sinistea zaila bada ere. Hilabete beranduago Diputa-zioaren Herri Lan saileko buru Jose Félix Basozabalek aitortu zuen legez, "arazo larria dugu. Baliteke berriz ere sabaia behera etortzea".



Zalantzaren arrazoia haitzaren biguntasu-nean datza. Adituek diotenez, berrehun metro luze da haitz horretako zatia. "Bageneukan lurraren kalitatearen berri. Horregatik zimentarriak ohi baino sendo-ago jarri ditugu. Baina inorgutxik pentsatu ahal zuen horrelako gauza bat etorriko zi-tzaigunik", esan zuen Basozabalek Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean.

GARBIKETA LANAK

Sabaia jauzi eta gero garbiketa lanak astiro egiten ari dira, zailak eta arriskutsuak dira eta. Porlana sartzen ari dira hondakinak kendu aurretik, hondakinok lurrari eusten diotenak direlako.

Orotara, zereginok bi hilabete eta erdiko atzerapena ekarriko dute. Eta bitartean arriskuak hortxe dirau.

ZUMALAKARREGIRAKO SARBIDE BERRIA

Doctor Ornilla kaletik Txurdiagatik Santutxura doazen autoak Zumalakarregi etor-biderako aterabide berria eukiko dute. Horretarako lanak hasita daude. Induskai-luek bidea zabaldu egin dute. Obrak amai-tu bitartean Doctor Ornilla kaletik doazen kotxeetako gidariak kontuz joan beharko dute.



Matikoko auzoek osasun zentro berria daukate

Gaztelekuk 24.000 bizilagunen premia asetu beharko du

Gazteleku zenaren inguruan inauguratu zen apirilaren 25ean Matikoko osasun zentro berria. Mila eta berrehun metro karratuko instalazioetan 24.000 herritarren beharrezan atendituko dituzte hemendik aurrera. Orain arte Uribarriko bizilagunek osasuna jagoteko alboko auzoetara joan behar zuten.

Bianako Printzea kaleko lokal berrietan hama-bi osagile, pediatra bi, hamahiru erizain eta emagin batek egingo dute behar. Goiz eta arratsaldez egongo da zabalik, goizeko zor-tzetatik hasi eta iluntzeko zortziak arte. Zapu-tuetan be atek edegiko ditu, goizez bakarrik izango bada ere.

Auzoen eskakizunetarik bat izan da osasun zentroa azken urteotan. Izan ere, Uribarri eta Matikoko herritarrak gaixotuez gero, alboko auzoetara jo beste biderik ez zuten. Albia, Begoñalde eta Zurbarango osasun zentroetara abiatu behar izan dute azken urteotan, auzoan bertan osasun zainketarik hartu ezinik.

Inaugurazio ekitaldian Iñaki Azkuna alkateagaz batera Gabriel Inclán Osasun sailburua agertu zen. Inclánek bere sailak azken urteotan Bilbon eginiko lana txalotu zuen. Azken hamarkadan San Inazio, Bolueta, Albia, Bilbo Zaharra, Indautxu eta Zazpi Kaleetako osasun zen-troak zabaldu dituzte. Hauetaz gain, martxoan bertan Otxarkoagan irekitako instalazioak Matikokoaren aurretik jendearen zerbitzura jarritako azkenak dira.



AUZOEN PROTESTA

Inaugurazio ekitaldian ez zen ezustekorik falta izan. Agintariak barruan zeuden bitartean kanpoan auzokoek pankarta luzenga bat zabaldu zuten. Bertoko bizilagunak pozik dagoz Gaztelekuko osasun zentroarekin baina badaukate, euren esanetan, alkateagaz kezaka ibilteko arrazoinik. Izan ere, inguru hartan bertan tanatorioa egi-ten dagoz auzoen iritziaren kontra eta Udalarenak bera-renak ziren metro karratu batzuk beretzat hartuta. Uribar-riko auzokoek kontu honen inguruan Iñaki Azkunaren taldearen jarrera salatu zuten.

ERREIBINDIKAZIO ZAHARRA

Santutxuko auzoen eskakizun zahar bat egia bihur-tuko da berehala. Egunokaz azken ikutuak ematen ari zaizkio Luis Luciano Bonaparte, Juan de la Cosa, Particular de Alleda eta Landa Orlegi kaleetako etxe-en arteko orubeari. Hainbat urtez zabarkeriak jota egon ostean, Udalak 70en bat milioi pezeta gastatu ditu plaza gisa atontzeko. Besteak beste, umeentza-ko olgetak eta berdeguneak eukiko ditu.



Zure publizitatea

BERTON

94 473 54 48



**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**

SAAK



Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**

Euskararen eguna Zurbaran institutuan Goizetik gauera arteko egitaraua egin zuten geure hizkuntzari bultzada emateko asmoz

Zurbaran institutuan Euskararen Eguna ospatu zuten mar-txoaren 30an. Goizean goiz hasi eta gauera arte hainbat ekitaldiz jositako egitarauan murgildu ziren bertako ikasle, irakasle eta langileak. Helburua, euskarari bultzada ematea.

Testua eta argazkiak: Itsaso Perez

Atariko gisa, martxoaren 23an lehen hezkuntzan jait-xoa eta euskal baserri giroko jolasetan murgildu ziren haurrak arratsalde eguzkitsu batean Kulki taldekoen eskutik. Hurrengo ostegunean Lanbide Heziketako (LH) zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleek euskal musika tresnez ezagutu eta gozatzeko aukera izan zuten Infernuko Auspokoek eskaini zuten erakustaldian. Dena den, batzuk "makailua" nahiago



zuten.

Eta aste batzuk lehenagotik prestatzen egon eta gero, iri-tsi zen eguna. Mar-txoaren 30ean eguraldia goibel, bestelako itxaropenaz egon baginen ere. Arazoak arazo, aurrera egin eta goiz goizetik ekin genion azken orduko prestatetei eta apaintetari, geletan eginiko eskulaneekin. Goizeko bederatzietan aurreko egunetan egindako lehiaketan sariak banatu zituzten, baita haietan parte hartu zuten guztiei oroigarriak eman ere. Honen gainean aipamen txiki bat egiteko eskatu didate. Izan ere, amodiozko olerkien lehiaketan parte hartu zutenak ez ziren denak neskak izan, mutil bat edo beste ere tar-tean baitzegoen. Badakizue, beraz.

KIROLAK

Sarien banaketaren ostean kiroletako txapelketei hasiera eman zitzaizen: esku pilota, palak, sokatira, lokotx bilketa, Eguraldia zela eta denak leku berean jokatu behar izan ziren eta aurreikusita zeuden hain-




bat ezin izan ziren egin, lokotx bilketa eta zesta txapelketak esate baterako.

Oihartzun handien izan zutenak palak eta esku pilota txapelketan izan ziren, 30 eta 25 bikoteekin hurrenez hurren. Ez genituen Retegi ezta Agirrerik ere ikusi, baina bai taxuzko partidurik. Jarraian sokatira. Betiko moduan eta taldekideen kopurua ondo zehaztuta egon arren, jende anitzekoa suertatu zen, talde batzuk besteekin nahasiz.

Nekea agerian, 10:30etan atsedendia egin zen, DBHko 3. mailakoek etxean prestatutako patata tortilla pintxoak dastatzeko aukerarekin. Hortik ateratako dirua datorren ikasturte amaierako bidaian inbertituko dute. Pintxo asko saldu behar horretarako!

KORRIKA TXIKIA

Sabela bete ondoren (ez oso une aproposenean) lasterka joateko ordua heldu zitzaigun. Korrika Txikiaren lekukoaren bila abiatu ginen. Zurbaranbarrin dagoen Ellacuria Institutukoek ekarriko zuten Lezamako Trenbide Zaharra kalean dagoen batzokiraino eta handik, guk hartuta, Zurbaran instituturaino iritsiko zen. Eus-



kal Herrian nahiko hedatuta dagoen ohiturari atxikiz lekukoa berandutu egin zen apur batean.


Hala ere, gogoz eta ikasle pilo batez lagunduta etorri zen. Aldatz behera izan arren, Zurbaran Instituturainoko bidea luze-luze bihurtu zen batzuentzat, eta hor bai moteldu zen martxa. Hala ere, iritsi, mezua iritsi zen ikastetxeraino.

Arnasa hartuta eta ondo eserita, euskal dantzen erakustaldiaz gozatu egin

genuen ikastetxean entsaiatzen duten neska eta mutilen eskutik. Ikusi, ikasi eta gero dantza ere egin zuen gura izan zuenak. Bi erakustaldi bete zituzten: lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta lehenengoz eta gero bigarren hezkuntzakoentzat bestea. Honetan batzuk dantza egiten ausartu ziren arren, lotsati andana ederra zegoen aretoan.

Eta egunari amaiera emateko eta giroa apur bat gehiago alaitzeko rock kontzertua gazteentzat, Uribarri inguruko talde batek eskainita.

Ordu gutxitan gauza asko euskararen alde, baina bada oraindik zeregin handia. Beraz, horretan segituko dugu eguneroko lanean.



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon
topagunea eta elkarte
egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,
batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

Pa...Ya

JO TA KE OTXARKOAGA

EUSKALDUNDU ARTE

OTXARKOAGA

Pa...Yak baditu alternatibak

berton

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

ENIABE (784 M)

BARAZARTIK


Barazar mendatea (604 m.) gainditu bezain laster, eskumaldean dagoen Bengoetxea tabernaren (A) aurrean utzi genuen autoa.

Gorbea alderantz doan pista hartu eta kilometro eta erdiz paxadaz ibiliko gara alertze eta pago batzuen artean, eskumaldean aurkituko dugun bideari jaramonik egin barik. Ondoren bidebanatze (B) batera helduko gara. Apur bat lehenago "Txabola de Campos" dioen txartela dago.

Bidegurutze horretan ezkerratera doan pista hartu behar dugu. Kilometro bat egin eta gero errekatxo baten gainera pasatuko gara. Erreka txabola baten ingurura hurbiltzen da. Geuk pista aurrerantz segituko dugu eta laster, beste errekatxo bat zeharkatu-takoan, zelai batera iritsiko gara. Pagadiaren aurrean "Jabedun bidea. Prohibido el paso" dioen kartela dago. (C)

Eskuinalderako pista utzita, ezkerrekoa hartuko dugu eta hamar minutu beranduago burdinazko ate bat zeharkatu beharko dugu. Ostean, gorantz jarraituta laster antenen ingurura helduko gara. Bertón Ubideatik datorren errepi-dearekin egingo dugu topo. Antena nagusitik aurrera segituaz txartel-kutxa topatuko dugu. (Eniabe 784 m.).

Itzultzerakoan, nahi badugu, Ubideatik datorren errepidea eta hamar minututan "Lepolekueta" (781 m.) tontorrean egon gaitzke.



IBILALDI OSOA:
Ordu bete.

BIDEAN IKUSI GENITUEN ZUHAITZ MOTAK:
604-700 metro: Izeia, haritza, pinua, pagoa, nekosta, alertzea.
700-804 metro: Gorostia, haritza, elorria, pinua, pagoa, alertzea.

DEABRU BELTZAK FITXATU DITU ANTZERKIGINTZAKO ENPRESA INDARTSU BATEK

TALDE SANTUTXUARRA HAMALAU EKITALDIKO GIRA EGINGO DU ESTATUAN ETA LONDONEN

"Deabru Beltzak" antzerki talde santutxuarrak fitxatu du Estatu espainoleko enpresa indartu batek bere programazioetan sartzeko asmoz. Horri esker, maiatzean Valladoliden hasi eta irailean Barcelonan amaitu bitartean hamalau ekitaldiko gira egingo dute "Bikiak" euren obrarekin. Gainera, beste antzezlan bat, "A, e, i, o, u", gurean gabonetan estrenatua, katalaneraz ere emango dute hemendik aurrera.

Testua: J. Larrazabal
Argazkiak: Deabru Beltzak

Sasoi betean dabil azkenaldion "Deabru Beltzak" taldea. Garbitxu eta César Arroyok osatutako bikotea Estatu espainoleko enpresa indartsu batek fitxatu du "Bikiak" antzezlan lau haitzera zabaltzeko asmoz. Enpresa hori, "Free-art", erreferentzia da antzerkigintzaren munduan eta Estatu zein Estatu kanpoko jaialdi handiekin lotura estuak ditu.

Taldekideek eurek argitzen dutenez, enpresak "gure espektakulutzat" jo du "Bikiak". "Horrek esan nahi duena da eurekin eksklusibean egingo dugula lan. Badirudi gurekin apostu handia egiteko asmoa dutela", diote. Gaur egun Free-artek hamaika talde baino ez du eskaintzen "gure espektakulu gisa. Fitxaketaren lehenengo ondorioa maiatza eta iraila bitarteko hamalau ekitaldiko gira izango da. Maiatzean Valladolideko nazioarteko jaialdian hasiko dira eta uda beteko lanaren ostean Barcelonako La Mercé jaialdian amaituko dute. Estatu espainoletik kanpora baten baino ez dute irtengo, baina ez edonora joateko, Londongo Stocktonera baizik.

"Orain ikusiko dugu merkatuan gure erantzuna zein den", azaltzen dute antzele santutxuarrak. Hala ere,



aurtengoa hamarretakoa baino ez da izango. Benetako bazkaria datorren urtean etorriko ei da, orduan gira askoz ere luzeago eta "nazioartekoago" egingo baitute. "Gurea da enpresa honek fitxatu duen lehenengo talde euskalduna. Badira enpresa honekin lan egin dutenak, baina ez gure espektakulu atalean", argitzen dute.

Fitxaketak merkatua zabaltzeko eta katxeta igotzeko parada emango die. Antzezlanean, oster, aldaketa gutxi ekarriko du. "Aholkuak eman dizkigute zenbait atal egokitze", diote antzeleek.



ANTZERKI TALDEA


KATALANERAZ

"Bikiak" lanarekin arrakasta heldu bazaie, Gabonetan estrenatutako azken antzezlanarekin ere mugak hausten ari dira deabru beltzak. "A, e, i, o, u" umeentzako ikuskizuna orain artean euskaraz eta gaztelaniaz eman ostean maiatzaren 25ean katalaneraz estrenatuko dute.


Antzezlan euskaraz sortua dago, deabru beltzek ohi duten legez, eta gero gaztelaniara egokitu dute. Abestietan Bixente Martinez, Txetxu Altogirre eta Iñaki Aurrekoetxearen laguntza euki dute.

Ikuskizuna euskaraz eta gaztelaniaz antzetzten ibili ostean, Catalunya Xarxa jaialdirako, ume antzerkigintzan inportantea, aukeratuak izan dira. Hortik etorri da katalaneraz emateko saioa, hango lagunek ere bultzatuta. "Ahalegin izugarria izan da, kanta eta pertsonaiak egokitu behar izan ditugulako", dinoskue.

Obraren ardatz nagusia neska bat denez, euskaraz eta



gaztelaniaz egiteko pertsona bat hartu dute eta katalanez egiteko beste bat kontratatu dute. "Ongi ez dakigun hizkuntza batean egiterakoan lotsa handia sentitu dugu, ongi ahozkatuko ote genuen beldurrez", aitortzen dute. Hala ere, laguntza handia eskuratu dute eta lana txukun geldituko dela ziurtatzen dute.



Biktimenganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ☾
OPARIAK ★
Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN
TURETXE
Santutxuko poteo gunean

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Urteak bete dituzu jada eta espero baino opari gehiago jaso dituzu ere. Familian eta lagungiroan ezinbestekoa zarela inoiz pentsatu duzu?

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Astroek zure alde egingo dute hurrengo astetan. Buruan dituzun plan horiek aurrera ateratzeko ordua da.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Bihotz kontutan txarto doakizu azken aldian. Udaberria eta beroa ligatzeko ezinhobe.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Azterketen kontua burura datorkizun bakoitzean urduri jartzen zara. Larriuneak gerta ez daitezzen has zaitez pixkanaka apunteak gainbegiraten.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Zure bizitza osoa zertan eman nahi duzun ez dakizu oraindik eta buruari bueltaka zaude gau ta egun. Lasai, argituko zara!

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Gurasoekin etengabeko haserraldian egotea ez da gauza arraroa. Edozein etxetan liskarrak maiz egoten dira. Pazientzia.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Faltan botatzen duzun pertsona horretaz ez zaitez hainbeste larritu. Konfidantza harreman oren muina da. Horrelakorik ez da falta bion artean.

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Momentu zailak pasatzen ari zara. Gezurra dirudien arren jakin ezazu danak pasatzen direla!

Sagitaris: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Lagunekin asteburua pasatzea guztatuko litzaizuke ezta? Etxean giroa baretuta dagoen unea aprobetxatu eta dirua aurrezten joan zaitez.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Informatikaren mundua ez zaizu inoiz larregi interesatu baina internet ezagutu zenuenetik orduak ematen dituzu pantaila aurrean. Poltsikorako ezezik begientzat latza izan daiteke, adi!

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Dirua lortzea ez da erraza. Lanik egiteko gogo askorik ez duzu ezta? Badakizu, kinielan eta loterian zortea.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Fisikoki ez zaude oso ondo. Sukarra eta tripako mina sentitzeko arriskua izango duzu. Eraman ezazu parazanola alboan!

agenda

MAIATZAK 5.

Bilbo dantzan. Bilboko areatzen euskal erromeria. Bizkai elkarteak antolatuta.

MAIATZAK 6.

Herri Urrats'01. Senpere (Lapurdi)

MAIATZAK 6.

Euskal eskola publikoaren jaia Etxebarria parkean.

MAIATZAK 7-9-14-16-21.

"Geroa orain" zikloaren hitzaldiak. Bidebarrietako udal liburutegia.

MAIATZAK 13.

Eguzkilorea mendi taldearen irtenaldia. Vallegrull eta Recuenco, Valderejotik (Araba).

MAIATZAK 19.

Prentsa aurrekoa. 2000 urteko Nobel saridun Gao Xingjian. Bidebarrietako udal liburutegia.

MAIATZAK 27.

Ibilaldia'01. Abusu.

MAIATZAK 27.

Eguzkilorea mendi taldearen irtenaldia. Moncayo (Aragón)

